

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abenduaren 10a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Ultzama • Bihartik aurrera euskara bultzatzeko hainbat ekitaldi egingen dituzte zazpi taldek

Gorramendi • Baztango musika taldea «Musika ona egitea da gure helburua»



Durangoko euskal liburu eta disko azoka iragan da berriro ere. Baina aurten, liburu eta diskoetatik landara, protagonista nagusi bat izan du: Nafarroa. Durangaldea Nafarroatik bereizi zeneko zortzigarren mendeurrena betetzean, Nafarroa omendu dute antolatzaileek, eta Nafarroa eta euskararen inguruan izan dira liburu eta diskoen artean egindako hitzaldi gehienak. Haatik, Nafarroa azokaren ardatz izan arren, disko eta liburu berri gutxi heldu dira hemendik Durangoraino.

Ultzama •

Euskararen alde bat eginik

Hainbat ekitaldi eta kanpaina egingo dituzte bihartik aurrera

Osora zazpi erakunde eta zerbitzu bildu dira haien arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatzeko. Bihar, kontzertua izango da, eta hurrengo egunetan hitzaldiak eta bertso afaria.



Hemendik at —argazkian— eta Berri Txarrak talde nafarren kontzertuak dira Ultzaman euskararen erabilpena sustatzeko antolatutako lehen ekitaldiak. • ADOLFO LAKUNTZA

A EK-ko euskaltegiak, Ametza kultur elkarteak (Esan-Erran irratia-erakunde bultzatzailea), Euskara Batzordeak, Kirol Zerbitzuak, Kultur Animazioko Zerbitzuak, Mor-kotx gazte taldeak eta Sustaiak guraso elkarteak, euskara gutxi erabiltzen dela eta kezkatuta, gune bat sortu dute, gaur egun euskarak inguru horretan duen egoera latzari aurre egiteko asmoz. Helburu nagusiak elkarlana bultzatzea eta euskararen alde lan egitea dira. Egin dituzten bi bilere-tan, zenbait ekimen antolatzea erabaki dute. Lan eta ideia anitz atera ziren, eta ideia horietako batzuk jadanik gauzatu dituzte.

Bihar, Lekunberriko Berri Txarrak eta Iruñeko Hemendik At! taldeek, Imozko Lata-sako pilotalekuan, kontzertua eskainiko dute hamabi eta erdietan. Lekunberrikoek atera berria duten bigarren diskoa aurkeztuko dute, *Ikasten*. Kontzertuarekin Esan-Erran

irratia indartu eta diruz lagundu nahi dute.

Asteazkenean, abenduak 15, Txus Congil soziologoak hitzaldi bat emanen du, ele bitan, Ultzamako Udalaren lokaletan, arratseko bederatzi-tan. Guraso eta gaztetxoek zuzendua izanen da batik bat, parranda egiteko edo ateratzeko adina egokiari buruz mintzatuko baita. Parrandetan egiten dutenaz ere solastuko da, zer droga motak hartzen diren eta abar.

Bertzalde, heldu den larunbatean, Iraizozko ostatuan, bertsotan aritzeko aukera izanen da, trikitixa eta guzti. Bertso-triki-afariaren hirugarren ekitaldia izanen da; bertan, hiru bertsolarik eta inguruko musikariek elkartzeko asmoa dute. Afaltzeko txartelak Iraizozko ostatuan bertan hartzen ahal dira.

Dena den, besta giroan aldarrikapena ere txertatu dute, Euskararen Lege berrirako sinadurak bilduko baitira. Oinarriak taldeko Iñaki Lasa ekimen horren berri emateko azkeneko bileran izan zen. Gune horretan biltzen diren taldeak prest azaldu ziren aipatutako kanpainari bultzada

emateko; izan ere, euskara suspertzeko Administrazioan indarra egiteari ezinbertzeko dela diote Ultzamako euskaltzaleek.

Aipatu bezala, gune horren helburua euskararen erabilpena bultzatzeko elkarlanean aritzea izanik, ekitaldi sorta horrek jarraipena izanen du ilbeltzetik aitzin. Bertzeak bertze, ingururako euskal liburutegia, umeendako ludoteka, mendi ateraldiak eta euskal kantuen ikastaroa abian jartzeko asmotan dabilta.

→ Txari Eleta

Burlata

'Lagundu Arakil', ez dutenei laguntzeko

LAGUNDU ARAKIL BURLATAKO elkarteak, aurrera egiteko, laguntzaren bila ari da. Elkarleak Udalaren diru-laguntzez eta jendeak emandakoez egin ohi du aurrera, baina dagoeneko laguntza horiek gutxi dira elkarleak duen lana aurrera eramateko. *Lagundu Arakil* elkarteak profesional eta laguntzaileek egiten dute lan, gizarteratzeko arazoak dituztenei laguntza emateko.

Gizartean parte hartu ahal izateko heziketa arazoak edo baliabide nahikorik ez dutenek aurrera egin dezaten lortu nahi du 1995ean sortu elkarleak; Lau urte daramate lanean *Lagundu Arakil* sortu zuten gazteek; hasierako proiektu horrek ongi lan egin du orain arte, eta orain bertako haurren beharrik asetzeko laguntzaren bila ari dira, laguntzen laguntzeko. Baina elkarleak ez du haurrekin bakarrik lan egiten. Elkarleak gurasoei ere eskaintzen die laguntza, baita etorkinei eta gutxiengo etnikoei ere.

Ikasketak direla, integratzeko arazoak direla edo baztertzeko arriskuak direla, arazoak dituzten haurrei eta beren gurasoei ere laguntzeko sortu zen *Lagundu Arakil*; haurrek laguntzarako eta aurrera egiteko klaseak jasotzen ahal dituzte astean, eta ostiral eta larunbatetan aisialdirako ekintzak antolatzen dituzte. Gurasoek ere euren haurrei laguntza ematen ikasten ahal dute.

→ Miren Iriarte

zubian barna

BINGEN AMADOZ



B azen behin mutiko bat futboleko jolas-ten ez zena. Ipuinak irakurtzea zuen gustuko, berriz. Fantasia zoragarrietan ibiltzea nahiago zuen lurlean ibiltzea baino. Kabiak lapurtzen ez zen trebe. Erreketan, berriz, erregea zen. Zapaburuekin ederki molidatzen zen, haien zat desbideratzen zuen uraren norabidea. Lurrean xinaurriak zituen etsai. Bere barneko minak bultzaturik, krudela zen haiekin. Mutur-joketan ez zen sekula sartu. Bere mundu bakartian ez zen horren beharrik.

Mutiko irakurzalea

Ez zen inongo esparrurik defendatu behar. Berea zen ikusten zen guztia eta batez ere ikusten ez zena, eta hori ez zion inork kendu behar. Nork eramane zizkion doinuak? Nork haizea?

Mendien artean bizi zelarik, lautadarekin egiten zuen amets. Bihotz minaren zapore mingotsa jasaten zuen nekez. Lotsaren lainoak nola urratu ez zekien. Gauak sortzen zion kezkar-ekin zer egin?

Atzean utzitako paradisua kendu zioten ares-

tian. Inposatutako herrian ez zuen harremanik nahi. Ihesbidea zeukan irteera bakarra. Zituen oroimen eskas bezain aberatsetan murgildu zen. Heriotzaren erritoetara hurbildu eta ikutue-zinezko sinismenetan topatu zuen babesa.

Haren ondoko iskanbilek aztoratzen zuten maiz. Bakardadea hausten zioten.

Soberazko tentsio hartan gaixotu zen, eta orduantxe, baita gero ere, ohartu zen gabezia larriak zituela eta batez ere ferekaren beharra zuela.

Baztan • Prentsa lantegia gaztetxoendako

Xauli gazte informazio bulegoarena da ekimena

**Baztango gazteak
elkartzearen, Xauli
gazte informazio
bulegoak prentsa
lantegi edo taller bat
antolatu du hurrengo
sei hilabeteetan
joratzeko. Ikastaroan
15 eta 18 urte
bitarteko gazteak
elkartuko dira.**



Prentsa tallerrean 10 ikasle aldizkari bat egiten ikasiko dute.

● EGUNKARIA

ren barruan sartua dago ikastaro hau, eta horregatik aldizkariak atalen bat izanen du Europako berrientzat. Ez da alde batera utzi nahi Iparralde; hori dela eta, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoari buruzko informazio ugari izanen da, batez ere hurbileko eskualdeetako. Beste hainbeste gai joratzeko dira, baina leku nagusia gazteek eta euren arazo eta ekin-tzek hartuko dute. Aldizkariak ohiko egitura izanen du, eta eskualdeko institutuekin

harremanak sendotzen saiatuko dira egileak.

Gazteak larunbateko elkartuko dira bi orduz eta lan guztia euskara hutsean egingo dute, beraiek izango dira aldizkariaren erredaktore eta protagonista. Hau da, haiek osatutako informazioa, beraiek ikuspuntu-tik. Ikastaroan gai teorikoak gai praktikoei tartekatuko dira. Otsailaren bukaerarako aldizkaria osatua egotea espero da. Aldizkaria borondatearen

truke banatuko da bailaran.

Xauli Gazte Informazio Bulegoak honelako ikastaroak antolatzen jarraitu nahi du, alde batetik gaztetxoaren artean ezagutzera emateko eta haien arteko harremanak ugaritu eta sendotzeko.

Bulegoa Elizondon dago, eta zabalik egoten da astelehen, astearte, ostegun eta ostiral arratsaldeetan.

→ Rakel Goñi



**urdairen
mintzoa**

Xabier Larraburu

Iritzi txorizo bat

Legeetan ez dut sinesten, eta sinesten nuenean kriston harriduraz irakurri nituen Nuremberg-eko legeak; eta Alemaniako epaileak irudikatzen ahal nituen judutarren kontrako epaiak banatzen, oso modu garbian, legearen barruan betiere. Hemen gauzak diferenteak direla esaten digute, baina azken finean epaile hauek ere ordena juridikoaz ari direnean, hiritarren elkarbizitza ari direnean, hitz dotoreen atzetik bortizkeriaren monopolioaren mehatxuz ari dira, eta legeen betebeharez ari direnean beraiek kargu aristokratiko eta erosoez ari dira, eta beraiek bost noren kontra ari diren, edo ez, baina funtsean: Alemanian bezala.

Erreinueta ere ez dut sinesten. Horregatik Espainiako nazionalistek abertzaleen kontrako pitokeriak esaten dituztenean («entelekia batez ari dira, pailazokeria galanta...» eta beste) barregurea sortzen zait. Lan eskerga eginda ere zaila baitute euskal abertzaleek Espainiako Erreinuaren pailazokeria haundira ailegatzeko. Non aurkituko dute bada Borboien familia tankerako pailazorik? Eta beraiek hitzaldi aspergarri, luze eta pertsonalitaterik gabeko horiek agoantatuko dituztenak? Intelektualen eta jakintsuetan ere ez dut sinesten, behintzat argipean dauden horietan; egotekotan, itzalpetan segitzen dute, seguro. Gero eta argiago daukat gizarte Aristokratiko batean bizi garela eta Errege, Politiko, Militar eta Epallekin batera intelektualen Aristokrazia dagoela. Espainiakoak ezagututa ulertu dut. Independentista naiz. Nahiago nuke entelekia berri baten proiektuan bizi, aristokraziarik gabekoa. Errege eta Militarrek kentzea, hori lehena. Ez dut esango abertzalea naizenik, ikurrinaren ordeztapu marroi bat jartzen badute niri bost. Hori bai, aristokraziarik gabeko entelekia nahi nuke eta independentea. Eta txorizo hau guztia zertarako? ETARI esateko, besteen kontra egonda ere, beraiekin ere ez nagoela batera ados, nire entelekia pailazoa aurrera eramateko ezin dudala irudikatu zertan lagundu dezaketen armen bidez, baina tira, orain ohar-tzen naiz ETAKO kideentzat ere nirea entelekia pailazo eta zozo bat besterik ez dela izango. Barka endredoak. Ez dut ezer esan. ●

XAULI GAZTE INFORMAZIO bulegoak badaramatza lau hilabete bekak, lana, bidaiak, lehiaketak eta beste hainbeste gairi buruzko informazioa ematen. Abuztuaren 16an jarri zuten martxan, eta geroztik hainbeste gazte hurbildu da Elizondoko bulegora dudak argitzera. Gazteen kezka eta galderei erantzuten diete bulegoan, gisa guztietako informazio zabala emanik. Bulegoaren helburuetako bat inguruko gazteen artean harreman handiagoa izatea da, eta horretarako prentsa

lantegi bat antolatu da. Lantegi horretan, 10 gazte aldizkari bat egiten ikasiko dute eta bitartean beraiek arteko harremanak sendotuko dituzte. Ikastaroa Mari Jose Garmendia kazetari elizondarrek emango du eta bi atal haundi izango ditu. Lehenbizikoa larunbat honetan hasiko da, otsaila arte, eta otsailaren aldizkariaren lehen zenbakia kaleratuko da. Bigarren atala martxoan hasi

eta maiatzean bukatuko da, bigarren zenbakia ateratzearrekin. Plazaratutako aldizkaria gaztetxoei zuzendua egonen da eta beraiek interesatzen zaizkien gaien informazioa emango da.

Proiektu honek Europako Batasunetik jasoko du laguntza gehiena; horrekin batera, Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak ere euren laguntza emango dute. Europa Gaztediarekin programa-



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Etxarriko zinematokia

Etxarri-Aranazko zinematokia zabaldu zenetik izaten ari den arrakastari buruz idatzi du Maider Beteluk **Gauixe** aste-kariko azken zenbakian. Urriaren 8an bistaratu zen Etxarriko zinematokian lehen filma, eta, geroztik, harrera ezin hobea egin diote herritarrek: "Udaletxeak ikerketa bat egin ondoren, zinearen gestioa talde bati eskaintzea erabaki zuen, hau da, talde autonomo bat kontratatu eta haiek bere kabuz zinearen gestio guztia gidatzea. Bandoa ateratu zuen talde interesatuaren bila, eta, azkenean, Amaia eta Txeli Erdozia eta

Nahia Arrese dira zineko arduradunak. Lehenengo urte hau probako urtea izango da, zineak etekinak edo gastuak ematen dituen ikusteko, zinearen beharrik ikusteko... Eta gero plangintza konkretu bat egingo da.

"Gestio talde honen lana zabala da: pelikulak Gasteizen aukeratu behar dituzte, emititzeko prestatu behar dituzte, pelikulak bistaratu, txarteldegian egon, goxokiak saldu, aretoa garbitu, jendea kontrolatu, pelikulak desmontatu, eta, azkenik, pelikulak Gasteizera bueltatu. Etxarriko zineak eskaintzen dituen fil-

mak berriak dira, hilabete edo hilabete eta erdi daramate zine aretoetan; herri txiki batentzat lor daitezkeen pelikularik hoberenak omen dira. Oraingoz arrakasta handia izan du zineak. Hasieran, batez ere, Etxarriko jendea joaten zen, baina gutxinaka-gutxinaka Sakanako beste herrietako jendea hasi da joaten Etxarriko zine aretora. Batez ere, jende gaztea da, eta orain arte jende gehien bildu duen saioa umeena izan da: 225 ume bildu ziren saio bakar batean. Zineak 278 pertsonarentzako tokiak dauka".

Durango

Nafarroa zenekoa

Aurtengo Durangoko azokak eta bertan egindako ekintza gehienek Nafarroa izan dute ardatz

Durango merinaldea
Nafarroako erresumatik bereiztu zeneko 800 urte beteko dira 2000. urtean; euskal disko eta liburuen Durangoko azokaren 34. aldiak historiaren une hori gogora ekarri eta Nafarroari eman dio hitza bost egunetan. Gaur egungo Nafarroan euskararen egoera izan zuten bertan hizketagai zenbait nafarrek.

IRAGAN ASTEAZKENEAN AMAITU ZEN LIBURU eta diskoen Durangoko azokaren 34. aldia, eta nobedade literario eta musikalen gainetik beste berezitasun garrantzitsu bat ekarri zuen aurtengo aldiak: Durangoko azokak Nafarroa izan du aurtan ardatz.

Durungaldea inoiz Nafarroako Erresumaren parte izan zen, eta durangarrak ere noizbait nafarrak izan ziren; horixe izan zen Gerediaga elkarte antolatzaileak aurtengo azoka Nafarroaren inguruan antolatzeko izan zuen arrazola. 1200. urtean utzi zion Durangaldea Nafarroako Erresumaren parte izateari, eta une historiko horren zortzigarren mendeurrenean Durango Nafarroa zeneko garaia ekarri nahi izan dute antolatzaileek gogora.

Hala ere, Gerediaga elkarteko lehendakari Anton Mari Aldekoa-Otalorak esan duenez, mendeurrena ez da Nafarroari hitza emateko arrazoi bakarra izan. «Gaur egun, Euskal Herriaren etorkizunarentzat Nafarroa giltzarri izanen dela uste dugu askok, eta horregatik hitza har dezan lagundu behar dugu; horregatik guztiagatik, Durango Nafarroa izan zen berriro ere azokak iraun zuen bost egun horietan.

Antzinako garaia gogoan

Durango aurtengo azoka zela-eta, Durungaldea inoiz Nafarroako lurretako parte izan zeneko berri izan dute lehenengo aldiz agian

Durango merinaldea Nafarroako erresumatik bereiztu zeneko 800. urteurrena betetzen dela eta, Durango Azokak historiaren une hori berreskuratu eta Nafarroari eman dio hitza bost egunetan.

• MIKEL MARTINEZ

askok. Baina, historia ezagutu ala ez, Erresuma zaharra bertaraino heltzen zeneko azarnak badira oraindik durangarren artean. Nafarroako eta Gaztelako erresumen arteko muga Zornotzan zegoen, gaur egun Amorebietako saihesbidea dagoen lekuan; eta oraindik ere Nafarroako Muga esaten diote bertakoek leku horri.

Nafarroak hartu zuen hitza, eta Nafarroa omendu zuen Durangoko 34. azokak. Jose Maria Jimeno Jurio historialari nafarrak azokaren omena jaso zuen, sarrera ekitaldian, eta antolatzaileek Nafarroaren inguruko azoka antolatzeko izan zituzten arrazoiak berretsi zituen: «Ni omentzeak aspaldiko baina gaurkotasan handiko ideia azpimarratzen du; Nafarroa Euskal Herri osoa da eta gure hizkuntza nafarren hizkuntza da».

Artaxonako historialariak Durungaldea Nafarroa zeneko garaia gogoratu zuen Durango Nafarroako txoko bat dela esan zuenean. 1200. urtean bereiztu zen Durungaldea Nafarroatik; XII. mendearen amaieran Santxo Nagusia Nafarroako errege zen eta Araba-ko ekialdea, Gipuzkoa eta Durungaldea zi-

Nafarroatik obedade gutxi

NAFARROA IZAN ZEN BOST EGUN HORIETAN AZOKAREN ARDUA BAINA, HIZLARIEZ GAIN, NAFARROATIK NOBEDADE GUTXI HELDU ZIREN BERTARAINO; eta liburu eta diskoak izaten zirenak batean azokaren mamia.

Pamiela eta Txalaparta Nafarroako argitaletxeek baina izan zuten aurtan ere azokan; baina idazle edo musikari nafar gutxi aurkeztu zuten nobedadeak. Pamielaren mahalan Mikel Belasko eta Felipe Riusek liburuak izan dira salgai. Belaskok etimologiaren inguruko lan bi ekarri ditu, *diccionario etimológico de los nombres de los montes, ríos y valles de navarra* eta *diccionario etimológico de los nombres de pueblos, villas y ciudades de navarra*.

Felipe Riusek iruindarraren lan berriak *bi argazki* eta *hainbat polaroid* izena du, eta zortzi ipuin eta Nafarroaren argitaraturiko zenbait zutabek osatzen dituzte liburuak. Argazkiak eta polaroidak dira liburuaren ardatz, oroimenaren garrantziaren isla moduan, omena nabarmendu nahi izan baitu Riusek liburuan.

Jon Alonso eta Patziku Perurera ere izan dira Durango. Lehenengoak Jose Saramagoren liburu baten itzulpena egin du, *libroa setioaren historia*, eta bigarrenak *euskarak sorgindutako numeroak* lanaren berriargitalpena izan du mahai gainean.

Nafarroako musikariek ere nobedade gutxi eraman dituzte Durangora. Iruñeko Skalariek taldeak AE-Krentzako kanta egin du, eta Durangon aurkeztu zuen txarrak taldeak bere bigarren diskoa eraman du azokara: *Ikasten*.

Nafarroatik heldutako hirugarren nobedadea Mikel Belasko musikari beratarrek sortu du. Gaztelupeko hotsak disketxearen eskutik ekarri du bere lehen lana: *amets bat*.

tuen bere gain. Gaztelak eta Aragoik Nafarroako Erresumari elkarrekin erasotzea erabaki zuten. Orduan galdu zuen Nafarroak Durungaldea, eta baita Gipuzkoa eta Araba ere, eta gaur duen hedadura hartu zuen, Nafarroa Garaia eta Nafarroa behearen hedadura.

Memoria historikoa berreskuratzearren garrantziak, Euskal Herriaren historian Nafarroa izan duen protagonismoa erakutsi nahi izan dute aurtengo azokaren ardura-dunek; hala ere, hitza ez dute garai horietako nafarrek hartu, gaur egungo nafarroa garaitarrek baizik.

Euskararen egoera mintzagai

Horregatik guztiagatik, nafarrak izan ziren hizlari Durangoko Azokan egindako hitzaldi eta mahai inguruetan; kazetariak, historialariak, abokatuak eta euskaltzainak.

Jimenotarrak izan ziren hizlarien oholza gainera igo ziren lehenengoak, semea sarre-
ra ekitaldia egiteko, eta azokaren gorazarrea jasotzeko alia. Eta hainekin hasi zen Nafarroan euskarak duen eta izan duen egoeraren azterketa.

Juan Mari Aldekoa-Otalora:

«Gaur egun, Euskal Herriaren etorkizunarentzat Nafarroa giltzarri izanen dela uste dugu askok, eta horregatik hitza eman diogu azokan»

Jose Maria Satrustegi:

«Euskararen indartzean, Nafarroan gertatu da Euskal Herri osoan izan den iraultzarik sakon eta azpimarragarria»

Jose Maria Jimeno Jurio bere seme Rolanden ondoren hartu zuen hitza. Historialari eta ikerlariak Nafarroa Euskal Herri osoa dela esan izan du noizbait, eta Durangon ere, hitzaldi aretoa lepo bete zegoela, ideia hori bera berretsi zuen; euskara inongo hizkuntza bada Nafar hizkuntza dela esan zuen.

Baina gaur egun Nafarroa Garaian euskarak duen egoera ulertzeko, Jose Maria Satrustegi Arruazuko euskaltzainak igandean azokan esandakoa argigarria da oso. Nafarroako euskarak gerra ostetik hona izan duen bilakaera izan zuen Satrustegik hizpide.

XIX. mendetik gerra garaia arte euskara erabat galtzen ari zen Nafarroan; eta gerra urteetan ere ez ziren une egokiagoak heldu nafar euskaldunentzat. Baina, gerra amaieratik, Diputazioetik bertatik hasi ziren, Satrustegi ere bertan zela, euskararen alde zerbait egin nahian. 70.eko hamarkadan euskararekiko usteak nolakoak ziren ikusita, jendearen borondatea irabazteak lehen-dabiziko urratsa behar izan izan. Eta horrela, haurrei euskaraz mintzatzeagatik sari-txoia banatzen hasi ziren, herriz herri. «Jendea harriturik utzi genuen; orduan arte euskarak debekaturik zegoen, eta orain saria jasotzea...». Hauxe izan zen Nafarroan euskaraz sustatzeko eginiko lehenengo urratsa; txikia, baina psikologikoki oso indartsua.

Gero, Principe de Viana aldiakarian euskarazko gehigarria kaleratzen hasi ziren; aurretik euskaraz sekula idatzi ez zuten idazleek euskaraz lan egiteari ekin zitoten. Ikastolak sortu ziren, eskola publikoetan euskara sartzen hasi ziren, eta Nafarroan euskaraz berreskuratzeko trabarik handiena desagertzea lortu zuten: hizkuntzaren atzerakada eta euskaraz mintzatzeak sortzen zuten lotsa gelditu zen erabat, garai horietan euskaraz egitean lotsa eta beldurra sortzen baitzitzaion oraindik ere jendeari.

Ikastolak Erriberaraino heldu dira gaur, eta garai batean euskararen etsai ziren haiek hizkuntzarekin zerbait egin behar dela onartu dute orain. Satrustegik esan zuenez, euskararen indartzean, Nafarroan gertatu da Euskal Herri osoan izan den iraultzarik sakon eta azpimarragarria.

Satrustegik utzi zuen garaian hartu zuten gainontzeko hizlariak hitza, euskara gaur nondik dabilen adierazteko. Legediaz, euskarazko hedabideen eronkez, kultur politiken eraginaz eta etorkizunerako itxaropenaz mintzatu ziren inoiz Nafarroaren parte izan zen Durango horretan.

→ Miren Iriarte

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Tiebasen errotu olerkari baten inguruan

Hiru urtera doa Roldan Jimeno Aranguren historialariak Maximo Ortabereren hainbat olerkiri sarrera azalgarria jarritz, eta Tiebasko olerkari hau jaio zeneko mendeurrena ospatzeko aitzakia, Tiebasko Gazteluaren liburua argitara eman zigula; Ortabereren bertsoen gisara, lan apal dugu, bere xumea, baina oparo eta egiazkoa



Maximo Ortabe Armendariz 1897.eko azaroaren 20an jaio zen, Untzuen, baina Tiebasera aldatu zuten gutxira Eloko eta Induraingo zituen gurasoek. Lehen ikasketak Tiebasen bertan amaituta, Larreako karmeldarren nobiziaduan sartu zen 1914.eko abuztuan, bertan zazpi bat urte higatu zituela 1921.ean bizitza erlijioso erabat largatu aitzin. Behin Iruñeraturik, eta hiriko hainbat lantegitatik pasatuz gero, Ardanaz drogeriara arribatu zen 1925.ean, bertako kontuen arduradun jardun zuela 1962.eko otsailaren 10ean zendu zen arte. Iruñean lurperatu zuten arren, egun Untzueko hilerrian datza hilobiraturik, bere bost liburuak idurikatzen dituzten hilarri baten azpian, Alfredo Sada eskultoreak egina.

Joan zaigun Iruña horretan kokaturik, orduko saltsa gutxitako perrexila izan genuen Ortabe: Herriaren Lagunen elkartekidea, hiriko Aste Santua more eta isil oraino goibeltzen duten moztarren elkartaren idazkaria, Orfeo Iruñarreko kantaria..., eta bere garaiko giro literarioan sarturik erabat. Gerra aurretik La Tradición Navarra egunkariko kolaboratzailea baita zuzendaria ere izan zen. Estafeta karrikako egunkari katoliko hori alderdi integristak sortu zuen, 1893.ean, eta nahiz inor gutxi irakurtzen zuen, alderdi integristak berrogei urtetan mantendu zuen, mila ale baino gehiagoko jaulkipena ez zuen honako egunkari hau integristei arras garestia ez zitzaielako; nolana ere, errepublika garaian desagertu zen, joera bertsukoa zen El Pensamiento Navarro-k 1932.ean fagozitatutik.

Gerra ostean, berriz, Biblioteca Católico-Propagandística erakundearen argitalpenean jarraitu zuen idazten, hau da, eskutruk banatzen zelako 25.000 aleko jaulkipen zabala zuen La Avalancha aldizkarian

alegia. Pregón aldizkarian ere agertu ziren Ortabereren bertsoak, bai Marzo izeneko 1940-1941.eko lehenbiziko aleetan, bai geroagoko Pregón-etan ere. Ortabereren bertsoak aterpetu zituzten beste bi aldizkari oharkabeaen igaro zitzaizkigun Arga eta Vida Navarra izan ziren. Bestalde, Iruñeko Prentsa Elkarteak 1940.az geroz argitara eman zuen La Hoja del Lunes informazio astekarian, hau da, 1936.az geroz Hoja Oficial de Navarra zen hartan, Fruslerías izeneko saila idazten zuen Jacinto ezizenaren azpian. Horretan 1958.eko abuztuaren 18an Hiroshima eta Nagasaki hirien aurkako bonbardaketaren 13. urteurrena zela eta atera zituen olerki kaskar batzuegatik Prentsa Elkartearen lehendakariak debekatu zion egunkari haren zuzendariri Ortabereren bertso gehiago argitara ematea, bada, nahiz asmo bakezaleekin, Ortabek amerikarren aurka esandako hitzak batera ez baitzetozen Francoren gobernamentuak Estatu Batuekin erakutsi jarrekin, tartean Marshall plangintza bera ere zegoelarik.

Ortabek argitara eman zuen lehenbiziko olerki liburua 1946.ean agertu zen Apezpikutegiko inprimategitik: En el castillo de Tiebas. Autoedizioa izanik, 5.000 pezeta pagatu behar izan zuen Ortabek bere olerkiak karrikan ikusi ahal izateko; alabaina, badirudi nahikoa ongi saldu zela, bada, agertu zen urte berean edizioaren bi herenak saldurik baitzituen, baita lagun zituen hainbat idazleri opariturik ere. Olerki horietan, Ortabek Tiebasko gazteluari zion maitasuna aski agerian utzi zuen, baita eraikin zaharrak erakusten zuen egoerak sortarazten zion samina;



izan ere, urte bertsuetan Oliteko jauregia konpontzen ari zen bitartean, Tiebasko gazteluak bere hondamendian agudo zerraien. Tiebasko gazteluaren erabateko galera

konponbidean ezartzeko edo, Oliteko jauregiaren zaharberitzeaz arduratu zen Jose Yarnoz arkitektoari eta Aldundiko lehendakariorde zegoen Rodeznoko kondeari berari idatzi zion Ortabek bere kezka azaltzeko, alferrik baina. Ortabereren olerkiekin batera, Miguel Ancil historialari afizionatuak tajutu Tiebasko eta Artaxonako historiak bazeuden -Ancilek Zangozako historia bat agertu zuen 1931.ean-, baita A. Rodríguez Ginesen marrazkiak eta Nicolas Ardanazaren argazkiak ere. Orduko kritikak arras onak izan ziren, ausaz bihozberaegiak, eta nabarmen oso gertatzen da Ortabereren lana epaitu edo erreentsionatu zuten gehienak hurbileko pertsonak zirela: Juan Jaso -Pensamiento Navarro-n-, Luis Monreal -Hoja del Lunes-en-, Baldomero Baron olerkaria, Felipe Gomez -Arga-n- edota Ancil bera.

Tiebasko gazteluari eskaini bertsoek erakarri zituen ospearen ondotik, Ortabek Jalones del camino eta En la penumbra del santuario bertsoetegiak agertu zituen Iruñeko Iberia argitaletxearekin, 1948.ean, berak deituko zituen Obras completas-en II. eta III. aleak zirenak. Bide honetatik, IV. alea 1952.ean Iruñean ere agertu [Navarra vuelve! liburua izan genuen. V. alea izango zen Cantares del buen querer; alabaina, karrikatu gabe geratu zitzaion, eta egun, idatzi zituen beste olerkiekin batera, esaterako Visión de un mártir edo Santa Felicia, bere jaraunseak diren Perez-Izquierdotarren eskuetan segitzen du.

etorri ahal ean

Patzi ku Perurena



Hezurraren muin gordeaz

Kulturaz honatago, betidanik liluratu izan nau hezurak; batez ere denborak lurrean garbitutako hezur zuri galdu horrek. Zokoz zoko baka-rik nabilela, zenbat aldiz azienda hilen baten hezurdura zuriari begira! Zenbat aldiz, bere giltzaduretatik askatu eta nonahi galdutako kaskezur, bernazur, edo saihetsezur zuri bati begira, gure munduko izateaz gogoetan! Maisu zahar zokoratu gisan edo hartzen nonbait hezurra! Orain ordea, haren dizipulu akitu moduan ari naiz.

Eduardo Gil Berak, ohar hagitx interesgarriak egiten ditu hezur kontuaz, Genesian emakumea gizonaren saihetsezur batetik sortua delako pasartea aitzakitza hartu, eta menderik mende, hizkuntzik hizkuntz, sortu den nahasmena argitzeko sumerieraren hurbileko iturri zaharretaraino joaz. Hona puxketa bat:

Kananearren artean hedatu ziren aintzinako sinestetan, hezur bidez adierazten zen ahaidekotasuna, odol bidez baino lehen. Feniziarrek sinesmen horixe hedatuko zuten gero Afrikako kolonietan barna. AEneas Silvio aita santu humanistak «Sane Punici ex ossibus dicunt oriri posteros, guos nos ex sanguine» pasartea honela argitzen du: «Kartagarrek erraiten dute, hezurretik sorberritzen dela beren zaizkia, guk odoletik erraiten duguna». Sinesmen honetatik zetorkien kartagarrei hildakoen hondakinak hezurmenditan biltzeko usarioa.

o bazterka bederen baliatzen dituenak: «hezurberitu, hezurbeltzak»... Seguru aski ere, mundu zaharreko tradizio hartatik geldituak behar dute, gure mendietako mairubartzak bezalaxe.

Eduardok honela dio, beste pasarte batean, emakumea sortu zeneko «costilla» zorionekoari dagokiola: «Itestu masoretikoak, 23. bertsikuluan dion

«hezurren guzizko hezur», harritzeko modukoa da». Zer izan ote liteke «hezurren guzizko hezur» hori? Niretzako begi bistakoa da: gizonaren zakila. Zer bestenaz? Eduardok ez du apropos nabarmentzen, baina, hala esan nahiko balu bezala hartu diot.

Behin, koadrilako lagun baten ahizpa bakar inozenteari aditu nion, zakil gogortuaz harritua: «baño hezurre ematten do ta», lizunkeriaren arrastorik ere gabe, harentzako mirari zen. Lehendik ere adituak nituen zakilari «erdiko hezurra» deituz zelebkeria franko, baina, neskatx ezkonberri haren ateraldiak harritu egin ninduen. Bazirudien bapatean feniziar baten aurrean nengoela.

Izanez ere, nork uka, «hezurren guzizko hezur»- honen edertasun metaforikoa? Har ezazu edozein hezur, nola giza-ki hala abere edo landare bate-na, eta barrenean hantxe gordeko dizu bere muin xuria. Beste horrenbeste, gure zakilak, «hezurren guzizko hezur» bihurtzen deneko xirula majiko honek.

Hezurari buruzko sineste zahar ugari jasotzen du Chevalier jaunak ere bere sinboloen hiztegian, eta niri, Afrikako banbaren sineskeran ageri den «munduaren erdiko hezur» hori iruditut zait beste guzien guraso eta eragile.

Bai, bere hezurrekin egin ditut gizonak, arma sakratuak eta xirula miragarriak. Eta zenbat haurrek ez ditut erabili izanen gurasoen hezurak jostailutako? Baina, noizbait aldatu egingo ziren kontuak. Erdikoa eta beste hezur guziak ere, begien bistatik gorde egiten baitira egun.

Ze lastima! Politikari eta teoriko nazkanteon taigabeko berbaroak baino zenbatenaz dotoreago ez gintuzke zentzatuko gure bizitzaz, orain ere, Otegi- ren seme bat Frankoren tibia batekin xirula jotzen ari dela, edo Juaristi bere ohaideak Sabinoren perone batekin buruan jo duela ikusteak.

Ziria

• Motxorrosolo •

Dultzaina

Ondarrutarrek ez zuten dultzaina laketa. Frankismoaren kin lotzen baitzuten «karlisten aginduz» festa garaian aditzen ohi zuten gaita doinua. Nafarroak Durangaldea berreskuratu duen honetan «dultzainarenak aretoko eleak gailendu ditu».

Gorramendi 10

Baztango musika taldea

«Musika ona egitea da gure helburua»

Gorramendi 10 taldeak Baztango plazak bete ditu aurtengo udan. Boskote honek bere musikaren maila hobetzea du helburu, eta baliteke gerora begira maketa bat grabatzea.

HIRU URTE DARAMATZATE Gorramendi 10 taldekoek mota guztietako abestiak prestatzen. Hasieran Baztanen bakarrik jotzen zuten, baina denborarekin Euskal Herriko beste toki batzuetan ere egon dira.

■ Nola sortu zen Gorramendi 10?


KARMELE: Behin, elkarrekin geundelarik, ideia sortu zen, eta 1996ko Nafarroako Haur Kantuen Txapelketa irabazi genuenean ikusi genuen taldeak aurrera ateratzeko aukerak izango zituela. Gutxi gorabehera bakoitzak musika instrumentu bat jotzen zuen, eta taldea osatzea erabaki genuen. Hasieran hirukote bat ginen, Iñigo eta Lander kantuan eta ni akordeoiarekin. Gerora Noe eta Naxara sartu ziren taldean.

■ Zenbat denbora pasatzen duzue entseguetan?

KARMELE: Batez ere asteburuetan jotzen dugu, ikasleak gara eta ez dugu aste tarteetan denbora handirik izaten musika jotzeko. Larunbatean bi ordu eta igandean beste bi aritzen gara. Dagoeneko ohitu gara asteburuetan lan egitera, eta ez zaigu gogorra egiten.

■ Nolako bilakaera izan du taldeak?

KARMELE: Hasieran ez genuen erreperatorio handirik, eta ia abesti guztiak euskal taldeen abestien bertsioak ziren. Geroago, ekipoa erosteko aukera izan genuenean, geure abestiak konposatzen eta kantatzen hasi ginen. Egun, geureak diren zortzi bat abesti ditugu erabat prestatuak eta besteren bat oraindik buka-



«Hasiera batean ez genuen inolako laguntza ekonomikorik eta Asun Iturriak dena ordaintzen zigun, baita instrumentuak ere. Asun Iturria da gure managerra, irakaslea, txoferra eta ama. Bera gabe ezingo genuke amestu ere egin orain daukaguna»

tzeke. Bestalde, hasieran Baztanen bakarrik jotzen genuen, baina pixkanaka-pixkanaka Euskal Herriko beste toki batzuetan ere aritu gara.

■ Zeintzuk dira taldearen helburuak?

IÑIGO: Epe luzearako gure helburua maketa bat ateratzea da, baina ez dugu egoera behartu nahi. Urteak pasa ahala, konturatu gara garrantzitsuena jotzen dugun musika hobetzea dela. Oraindik 15 eta 16 urte ditugu, baina ahalik eta urrunen iritsi nahiko genuke. Etorkizunari dagokionez, Euskal Herrian talde ezaguna izatea gustatuko litzaiguke.

■ Zeintzuk dira zuen gustuak musikari dagokionez?

IÑIGO: Bost garenez, oso gustu desberdinak ditugu. Hala ere, taldean badakigu zer jo nahi dugun, eta erabat

konplementatzen gara. Orain arte gure errepertorioa plazetan eta ezkontzetan jotzeko zen aproposa, baina orain hasi gara beste mota bateko kontzertuak prestatzen, tabernetan jotzeko batez ere.

■ Nolakoa da zuen publikoa?

KARMELE: Egoeraren arabera. Arratsalde haurrak eta adineko bikoteak dira gure entzuleak. Gazteek gaua nahiago dute.

■ Nondik dator taldearen izena?

IÑIGO: Bazen Baztanen Otsondo 602 izeneko talde bat. Otsondo mendate baten izena da eta 602 haren altuera. Mendate horretan kartel-txo bat dago, Gorramendi 10 izenarekin. Asko gustatu zitzaigun, eta izena geure egin genuen.

■ Zer esan nahi du zuentzat daukazuen adinarekin dirua irabazteak?

IÑIGO: Hasiera batean ez genuen inolako laguntza ekonomikorik eta Asun Iturriak dena ordaintzen zigun, baita instrumentuak ere. Diru eta maila musikaren aldetik, izugarritzko laguntza eman digu Asunek. Orain irabazten dugun dirua ekipoak hobetzeko izaten da, eta leku bate-tik bestera mugitzeko. Oso gazteak gara, eta gidatzeko baimena duen norbaitek eraman behar gaitu hara eta hona. Asun Iturria da gure managerra, irakaslea, txoferra eta ama. Bera gabe ezingo genuke egin orain daukaguna.

■ Aldaketak sartuko dituzue gerora begira?

IÑIGO: Doneztebeko lagun bat, Luismi, gurekin bateria jotzen hasi da duela gutxi. Ni ere hasi naiz haren taldean jotzen. Nolabaiteko trukaketa egiten dugu. Abesti gehiago sortu nahi ditugu; horretarako, Karmelek hitzak idatzi eta gehienetan nik musika jartzen diet. Bestetan, nik egiten dut dena. Taldea ezaguna egiteari buruz, hasieran musikaren munduan sartu nahi genuen. Gerora ikusi dugu hobe dela urte pare bat itxotzea eta, ikasketak bukatzean, taldea ezagutaraztea.

→ Rakel Goñi

Iñigo Belzunegi (gitarra elektrikoa), Naxara Maiztegi (gitarra elektrikoa), Noe Muñoz (saxofoia), Lander Santamaria (perkusioa) eta Karmele Gomezek (teklatuak) osatzen dute Gorramendi 10 taldea. Elizondokoak eta Elbetekoak dira, eta 15-16 urte dituzte. Taldeko gehienak DBHko laugarren urtean daude, Naxara izan ezik; hura batxilergoa ikasten ari da.

Gorramendi 10 taldea duela hiru urte sortu zuten Asun Iturriaren laguntzarekin. Musika izugarri gustatzen zaigu, eta, egoera txarrak pasa izan baditugu ere, orain argi daukagu aurrera jarraitu nahi dugula eta lan asko egin behar dugula oraindik, adierazi digu Karmelek. Plazarik plaza ibiltzen dira, batez ere uda garaian, eta euskal musika jotzen dute gehienbat.

Abestietan eguneroko gaiez hitz egiten dute: amodioaz, lagunez eta abarrez. Euren helburua ez da ehunka pertsonaren aurrean jotzea. Nahikoa zaie interesa duenak entzutea euren musika. Ezagunak izateak ez die lorik kentzen, eta betikoak izaten jarraitu nahiko lukete.



Nafar Kronika

Aitor Arozena

Aizkoraren etorkizunaz

Egunotan komunikabide guztietako solasgaia izan den ETaren su-etenaren etena alde batera uztea kasik arinkeria badirudi ere, kirolaren gaia ukitzeko asmoa dut oraingoan. Baina ez naiz ariko Osasunaren osasun egoera kaskarrak edo lau t'erdiko pilota txapelketaren azken txanpaz. Horien inguruan litroka tinta eta listu isuri eta isuri da medioetan. Gaurkoan, aizkoraz ariko naiz —hartara, sugearen eta aizkoraren gaia, erdizka bada ere, papereratuko dut nik ere—.

Harira, Nafarroako txapelketa nagusia Miel Mindegia irabazi du, 50 urte bete dituen urtean. Inguruko komunikabideetan aipamen xumea izan du txapelketa honek eta, batez ere, txapel-dunaren adinak. Julian Retegi 40 urte-tara allegatu zenean aunitz solastu zen horretaz, bere prestakuntzaz... baina inor gutti oroitu da Mindegiaz. Doneztebeko finalean arerio zituen bertze bi lagun ere 40 urtetik goitikoak ziren.

Zahartzen —edo hiltzen— ari ote da aizkora? Proba nagusiaren aitzinetik jubentil mailako Euskal Herriko txapelketa jokatu zen, eta horrek itxaropenerako atea zabaltzen badu ere, zirrikitu eskasa uzten du: inolako kanporaketarik egin gabe hiru gazte aurkeztu ziren finalera. Horietako bat, proba jokatze-ko kopurua osatzeko hirugarren lagun bat behar zelako joan zen plazara, prestakuntza sobera gabe, eta ezin izan zuen lana bukatu. Euskal Herri osoan hiru gazte! Aizkoraren nondik norakoa ikusteko adibide ederra izan zen Doneztebeko: txapeldunak 50 urte eta gazte mailako hiru lagun Euskal Herri osoan. Mindegia berak, gisa honetako txapelketek prestakuntza eta lan handia behar dutela eta oraindik erabaki ez badu ere, horietatik erretiratzeko pentsamendua duela adierazi zuen. Kirol garestia ere bada aizkora eta urtean tonaka egur joaten dira prestakuntza lan horietan. Erakustaldi eta apustuak esker bizi direla erraten dute aizkolariek. Bere garaian, telebistek berpiztu zuten pilota. Aizkoraren kasuan, lana zaila-koa izan dela iduri du.

KONTZERTUAK

- Iruñea:** Gaur, abenduak 10, De 9 a 12 taldeak *Y por fin los feos ganan* bere diskoa aurkeztuko du Nabarre-riako kultur etxean 19:30etan.
- Imoz:** Berri Txarrak eta Hemendik At taldeek kontzertua emanen dute larunbategi Latasako pilotalekuan, gaueko 12:30etatik aurrera.
- Lizarra:** PILT eta Eraso taldeek gaztetxean joko dute larunbategi iluntzeko 23:00etan.

BERTSOLARIAK

- Iruñea:** Gaur, abenduak 10, bertso afaria antolatu dute Iturrama institutuko ikasleek, ikasbidairako dirua lortzeko. Xabier Silveira, Estitxu Arozena eta Ekintza Landa izanen dira, San Fermin peñan, iluntzeko 21:30etan. Sarrerak Egia tabernan daude salgai, 1.500 pezetan.
- Goizueta:** Gaztetxeako aretoan, bertso trama izanen da bihar arratsaldeko 20:00etan, Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariekin.
- Ihabar:** Ihabarko Herriko Etxeko etxabea, bertso afaria izanen da bihar, Joseba Beltza, Eneko Lazkoz, Iosu Etxanobe eta Josema Leiza bertsolariekin.
- Doneztebe:** Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenak bertso saioa egingen dute astelehenean, eguerdiko 12:30etan, Eliza atarian.
- Arizkun:** Ordoki jatetxean bertso afaria izanen da astearte-an, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Peñagarikano bertsolariekin.

ANTZERKIA

- Araitz-Betelu:** Gaur gaueko 21:30etan, Maskarada taldeak Izarretako bitakora lana

emanen du Azkarateko elkarteak.

ERAKUSKETAK

- Elizondo:** Fernando Gorostidi-ren margolanak ikusgai daude Monseñor Berekoe-txea 2ko lokalean, urtarri-laren 6a arte. Lan egunetan 18:30etatik 21:00etara bisita daiteke erakusketa, eta besta egunetan, berri-z, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 21:00etara.

HITZALDIK

- Iruñea:** Jon Alonso idazle eta

itzultzaileak hitzaldia emanen du abenduaren 15ean NUPEko Filologia eta Lengoiaren Didaktika departamentuaren aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

LEHIAKETAK

- Iruñea:** 2000. urteko urtarri-laren 31a arte aurkez daitezke Sex Haizegoak antolatzen dituen Narrazio La-bur Erotikoen V. Lehiaketarako eta Pintura Erotikoen III. Lehiaketarako lanak.

BESTELAKOAK

- Elizondo:** Iruñezar euskaltegikoek antzerki taile-rra sortu nahi dute, eta horren inguruan hitz egiteko bilera egingen dute abenduaren 16an 19:00etan euskaltegian bertan. Informazio gehiago 948-210433 telefonoan.
- Iruñea:** 2000 urteko ekaina arte, Argilan, lan informazio-arako gazte bulegoa, irekiri-k dago asteartero 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara (Nabarrerria, 15-1. eskuina).



Eguberri giroa Iruñean

Olentzero hiriraino jaisteko oraindik bi aste oso falta diren arren, Eguberri giroa dagoeneko heldu da Iruñeraino. Alde Zaharreko eta hainbat auzotako kale eta enparantzak piztu dituzte koloreetako argiak; denda guztietako erakusleihoak Eguberriak gogoratzen dituzten apaindurez, argiez eta opariez horniturik daude; Takonerako ahateen urmaeleen iragan astean jarri zuten jaiotza handia; eta Yanguas y Miranda parkean ere zabaltzen dute Eguberrietan urtero egiten duten azokatxo. Inoiz baino jende gehiago dabil kaletik, dendetan batez ere, Gabonetarako dena prest izateko. Abenduak 24 izan baino lehen gozatzeko ahal da Eguberrietako giroarekin aurtzen ere.